

ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arregik, Oñatiko Alkate naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengoa agintzea erabaki dut:

TAO kontrolatzaileen lan-poltsa eratzeko onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzea

2023ko maiatzaren 10ean argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (89.zk) TAO kontrolatzaile lan-poltsa bat eratzeko deialdia eta oinarriak.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta eta aurkeztutako dokumentazioa azterturik, nik, Izaro Elorza Arregik, Oñatiko alkate naizenez, legeak ematen dizkidan eskumenak erabilita

ERABAKI DUT

Lehenengoa. - Onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzea.

ONARTUAK

NAN	Euskara maila egiaztatua
***9206**	Ez
***8069**	Bai
***4702**	Bai
***4705**	Bai
***9901**	Bai
***8691**	Ez
***8136**	Bai

BAZTERTUAK

NAN	Baztertze-arrazoiak
***7250**	3
***6120**	3

- (1) Eskera orria ez sinatzeagatik
- (2) Hautaketa-probarako tasa ez ordaintzeagatik
- (3) Betebeharreko baldintzen ziurtagiria ez aurkezteagatik

Bigarrena.- Hiru egun baliodun ematea erreklamazioak aurkezteko. Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda hori behin betiko bilakatuko da automatikoki. Erreklamazioren bat aurkeztuz gero, horiek onartu edo baztertuko dira eta beste ebazpen bat emango da, behin betiko zerrenda onartzeko.

Hirugarrena.- Egingo den ariketa, proba teorikoa, test erakoa izatea eta 2023ko uztailaren 17an 13:00etan egitea Oñatiko Euskaltegian. Probaren iraupen estimatua 40 minutukoa dela jakinean jartzea izangaiak. Probaren emaitzak argitara emango dira web-orrian eta udaleko iragarki-taulan.

Laugarrena.- Epaimahai kalifikatzailea izendatzea:

Mahaiburua: Idoia Lazpita Bengoa titular moduan, eta Ainhoa Arrieta Galarza, ordezko.

Mahaikideak:

1. Bokala: Sergio Solis Rodriguez titular moduan, eta Argoitz Ugalde Ferrero, ordezko.
2. Bokala: Xabier Berridi Iriarte titular moduan, eta Andoni Beristain Eizaguirre, ordezko.
3. Bokala: Ana Jesus Kortabarria Santos titular moduan, eta Beatriz Etxeberria Osoro, ordezko.

Idazkaria: Izaskun Querejeta Agirre titular moduan, eta Amets Irastorza Garmendia, ordezko.

Bosgarrena.- Erabakia argitaratzea udaletxeko iragarki taulan eta udalaren web-orrian.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.

Oñatin, 2023ko ekainaren 28an

ALKATEAK

Izaro Elorza Arregi